



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako koadernoak

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

HIZKUNTZA GAITASUNA

2
0
1
3
/
1
4

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Probak bi zati ditu.

Lehenengo zatian testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu. Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat
- ☒ B 200.000, gutxi gorabehera
- C Milioi bat
- D Zenbait milioi

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat
- ☒ B 200.000, gutxi gorabehera
- C Milioi bat
- ☒ D Zenbait milioi

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Iruñean, zer da ospe gehien duena?

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Alfonbra berria

Orain kontatu behar dizuedan istorio hau Larrabetzun gertatutakoa omen da, eta niri kontatu zidaten bezala, hitz bakar bat ere aldatu gabe, errepikatuko dizuet.

Itxura denez, Joanjoren eta Marisaren etxean egongelako alfonbra zaharkitu samarra zegoen, eta beste bat erosteko asmoa zeukaten aspalditik, baina badakizue... gerorako utzi eta gerorako utzi...



- Gaur bertan erosi behar dugu alfonbra berria –esan zion Marisak Joanjori halako batean–. Zoaz Bilbora, alfonbra persiarrak saltzen dituzten dendara, eta eros ezazu bat.

Joanjo berrogei urtetik gorako gizona zen, sudurra kakoduna zuen, eta metalezko betaurreko txiki batzuk, sudur handi samarraren gainean. Marisa ere berrogei urtetik gorako emakumea zen, ilea gorriz tindatutakoa eta jenio bizikoa.

Horretan ari zirela, Anartz eta Aiora, Joanjo eta Marisaren seme-alabak, etorri ziren. Anartz bederatzi urteko mutikoa zen, amaren antz handikoa, sudur-motza eta ile kizkurduna, kolore argikoa. Larruazala ere argia zuen, pekaz eta orbanek betea, Marisak bezalaxe. Aiora, berriz, hamaika urteko neska-motza zen, nahikoa beltzarana eta ile ilunekoa; ez aitak bezain beltza, baina amak baino askoz ilunagoa.

- Nik lagunduko dizut alfonbra aukeratzen –esan zion Aiorak aitari.
- Ederki, Aiora. Eskerrik asko –esan zion aitak, baina ez zirudien oso gustura zegoenik laguntza horrekin.
- Aiorak zurekin joan behar badu, nik ere zurekin joan nahi dut –Anartzek.
- Inbidix! –esan zion Aiorak, mingaina atereaz.
- Tuntuna!
- Nahikoa da! –egin zuen oihiu aitak–. Biok nirekin oraintxe bertan. Goazen!

Hirurak Bilbo aldera joan ziren, hiriaren sarrerako saltoki erraldoi horietako batera. Lantegi itxurako etxetzar batean “Alfonbra persiarrak” jartzen zuen kartel handi batek. Barrura sartu zirenean, zeharo txundituta geratu ziren, umeak batik bat. Lurzorutik hasi eta ia goiko sabairano alfonbraz beteta zegoen denda guztia. Saltzailea eskailera handi batzuetan bezala ibiltzen zen, oinutsik, alfonbra pila batzuetatik beste batzuetara.

Autoan istiluka ibili baziren ere, dendan sartu bezain azkar adiskidetu ziren anai-arrebak.

- Goazen alfonbra arabiarretara jolastera –esan zuen Aiorak.
- Alfonbra arabiarretara? –Anartzek.
- Bai, motel! Alfonbra hegalarrietara...

Anartz eta Aiora alfonbra gorri-laranja baten gainean jarri ziren eserita, Aiora aurrean eta Anartz atzean.

- Eraman gaitzazu etxera –esan zuen Aiorak.

Eta alfonbra, mantso-mantso, airean abiatu zen, dendako ate irekitik atera, eta zeru urdina zeharkatuz, ekialdeko bidea hartu zuen.

- Hegan ari gara! –esan zuen Aiorak.
- Ai...ai...ai... aita! –hasi zen totelka Anartz.
- Etxera ziztu bizian –esan zuen Aiorak, zeharo ikaratuta.

Eta alfonbra ziztu bizian abiatu zen, beti ekialdera, zuzen-zuzenean.

Aiorak eta Anartzek eztarriko zuloan korapilo handia zuten ordurako. Begiak itxi eta oihu egin zuten:

- Amaaaaa!

Halako batean, alfonbra lurreratu egin zen. Han inguruan eraikuntza batzuk zeuden, eta batzuek tipula baten antzeko sabaia zeukaten.

- Alfonbrak “bere” etxera ekarri gaitu, ez “gure” etxera –esan zuen Aiorak.



Aiorak esan bezala, alfonbrak Persiara eraman zituen anai-arrebak, “etxera” joateko esan baitzioten...

- Ederra egin dugu! –esan zuen Anartzek–, eta orain zer?
- Orain? Bilboko alfonbra dendara joateko esango diogu eta hara eramango gaitu –esan zuen Aiorak.

Baina ez zuten ezer egiteko denborarik izan. Ezertan hasi baino lehen, mutiko bat agertu zen alfonbrak lur hartu zuen etxe aurreko atarian. Azal iluneko mutil bat zen, betazal beltz handiak zituen eta txapel txiki bat zeraman buruan.

- Al-ha, ala-ra! Ala-ni, ala-re, ala-al, ala-fon, ala-bra!

Aiora eta Anartz txundituta geratu ziren. Hasieran kosta egin zitzaien ulertzea zer esaten ari zen mutiko persiarra, baina gero konturatu ziren “hitzen” aurreko “ala” eta “al” haiek guztiak kenduz gero ulertzeko moduan hitz egiten zuela Persiako mutikoak.

- “Hara! Nire alfonbra! esan du” –esan zion Anartzek Aiorari.
- Zaude lasai, “lixtoa”. Dagoeneko nik ere ikasi dut nola den hizkera xeble hori –erantzun zion Aiorak.



Berriketan aritu ziren etxe txikiaren aurrean. Persiako mutikoak dozena bat urte edo horrela izango zituen eta, adierazi zenez, alfonbrak eginez irabazten zuen egunerokoa. Orduak eta orduak pasatzen zituen bere esku txikiekin koloretako hariei korapiloak eta korapiloak eginez, alfonbra dotoreak osatzeko.

Dariusek esplikatu zien bera ez zela eskolara joaten eta lan asko egiten zuela, asko, asko. Baina diru gutxi jaso. Lanaren etekina Nasim bere nagusiak eramaten zuela, ia osorik. Bera txanpon batzuekin bakarrik geratzen zela. Nazka-nazka eginda zegoela Nasim arraio harekin eta ez zekiela zer egin.

Horretan ari zirela, oihu batzuk entzun ziren, urrutitik zetozen oihu batzuk, eta Dariusek esan zuen bere nagusia zela, zeharo haserre, eta “alfonbra, alfonbra” oihukatuz zetorrela etxerantz.

- Ala-zer, al-e, ala-gin?
- Zer egin? Eseri atzean –esan zien Aiorak, eta hirurak eseri ziren alfonbra gainean: Aiora aurrean, Anartz ondoren eta Darius atzean.
- Eraman gaitzazu Bilboko alfonbra persiarren dendara –esan zuen Aiorak–. Goazen ziztu bizian!

Eta alfonbra gainean ziztu bizian etorri ziren hirurak. Persiatik Bilboko alfonbra dendaraino, tximista baino azkarrago.

- Non sartu zarete? –galdetu zien aita– Eta nor da mutiko beltzaran hori?
- Gero esplikatuko dizugu, aita –esan zion Aiorak Joanjori–. Orain alfonbra hau erosi behar duzu.

Joanjok alfonbra gorri-laranja erosi zuen, ondo ordainduta, hegalaria zenik sumatu ere egin gabe. Gero, neska-mutikoak berriketan ari ziren, eta denbora asko baino lehen, Dariusek bere ideia zein zen esan zien. Alfonbra hegalariekin mezulari eta gutun-partitzaile hasiko zen, eta Nasimentzat alfonbrak eginez baino diru gehiago irabaziko zuen horrela. Eskolara ere joango zen, denborarik geratzen bazitzaion...

Al-a, ala-gur! –esan zuen Dariusek.

Alfonbraren gainean jarri zen, gero, eta etxerako bidea hartu zuen. Eta alfonbra ekialderantz abiatu zen. Dariusek agur egin zien eskuekin Aiora eta Anartz, eta dendako ate zabaletik irtenda, zeruan galdu zen.

Joanjo gizajoa aho zabalik geratu zen.

- Orain nola esplikatu behar diot Marisari alfonbra gorri-laranja bat erosi dudala etxerako, baina zeruan hegan joan dela gainean mutiko beltzaran bat zuela...

J.M. Olaizola "Txiliku". Egokitua

1. Nola zegoen egongelako alfonbra?

- A. Berria
- B. Berri samarra
- C. Zaharkitua
- D. Zaharkitu samarra

2. Esan ezazu ondoko baieztapenak egia (E) edo gezurra (G) diren.

	E	G
Anartzen ilea kizkurduna eta beltza da.		X
Aiora Anartz baino zaharragoa da eta ile iluna du.	X	
Mutiko persiarrak denbora asko ematen zuen alfonbrak egiten.	X	
Dariusek diru asko irabazten zuen alfonbrak eginez.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	2 zuzen edo gutxiago.
1	3 zuzen
2	4ak zuzen (G – E – E - G)

3. Zein zen Anartz eta Aioraren arteko adinaren aldea?

- A. Anartz bi urte gazteagoa zen.
- B. Anartz bi urte zaharragoa zen.
- C. Biak adin berekoak ziren.
- D. Anartz askoz gazteagoa zen.

4. Zergatik lagundu nahi zion Anartzek aitari alfonbra erosten?

- A. Alfonbrak oso gustuko zituelako.
- B. Aiorak lagunduko ziola entzun zuelako.
- C. Amak fabore hori eskatu ziolako.
- D. Beti horrela egiten zuelako.

5. Ordena itzazu pasarte hauek kronologikoki (1etik 4ra zenbatuz).

- | | |
|----------|--|
| 4 | Alfonbra gainean hirurak etorri ziren Persiatik Bilbora. |
| 1 | Amak aita alfonbra eroatera bidali zuen. |
| 3 | Azal iluneko mutiko persiar batekin elkartu ziren. |
| 2 | Aiora eta Anartz alfonbra gorri-laranja baten gainean eseri ziren eta airean abiatu ziren. |

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hurrenkera zuzen (4 – 1 – 3 - 2)

6. Testuaren bukaeran aita kezkatuta agertzen zaigu. Zergatik uste duzu kezkatuta dagoela?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea. Adibidez: • Alfonbra ordaindu zuelako eta hegan joan zitzaiolako. • Alfonbra hegan joan zaiolako. • Alfonbra hegan joan delako mutiko beltzaran bat gainean duela • ...
1	Holako erantzunen bat: • <i>Ez dakielako nola azaldu emazteari gertatu dena.</i> • <i>Ettxera alfonbrarik gabe bueltatuko delako eta ez dakielako andreari nola azaldu.</i> • <i>Ez dakielako nola esplikatu Marisari alfonbra zeruan hegan joan zaiola.</i> • <i>Emazteari gertatu dena azaldu beharko diolako eta sinistea zaila delako.</i> • ...

7. Zer esan nahi du “tximista baino azkarrago” esaldiak?

- A. Lasterketa bat egin zutela eta tximistari irabazi ziotela.
- B. Larrabezutik Bilbora oso azkar joan zirela kotxez.
- C. Tximista azkarra dela.
- D. Ziztu bizian etorri zirela alfonbraren gainean.

8. Zertarako idatzi du egileak testu hau?

- A. Alfonbrak nolakoak diren aipatzeko.
- B. Irakurleek ipuineko abenturaz gozatzeko.
- C. Persian alfonbrak daudela jakinarazteko.
- D. Anartzen familiari buruzko deskribapena kontatzeko.

9. Dariusen bizitza aldatu egin zen Aiora eta Anartz ezagutu ondoren. Osatu ondoko taula 2 aldaketa adieraziz:


	Aiora eta Anartz ezagutu aurretik egiten zuen zerbait	Aiora eta Anartz ezagutu ondoren egiten zuen zerbait
1.		
2.		

Zuzenketarako irizpideak											
Puntuazioa	Erantzuna/k										
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.										
1	Adaketa bat aipatzen du, ondorengoan artean: <table> <tr> <th>Aiora eta Anartz ezagutu aurretik egiten zuen zerbait</th><th>Aiora eta Anartz ezagutu ondoren egiten zuen zerbait</th></tr> <tr> <td><i>Alfonbrak eginez irabazten zuen egunerokoa</i></td><td><i>Alfonbra hegalariekin mezulari eta gutun partitzaile hasiko zen</i></td></tr> <tr> <td><i>Ez zen eskolara joaten</i></td><td><i>Eskolara joan denbora geratuz gero</i></td></tr> <tr> <td><i>Pobrea zen, gutxi irabazten zuen</i></td><td><i>Diru gehiago irabaziko zuen</i></td></tr> <tr> <td><i>Nagusiarekin nazkatuta zegoen</i></td><td><i>Ez zuen nagusiarentzat lan egingo</i></td></tr> </table>	Aiora eta Anartz ezagutu aurretik egiten zuen zerbait	Aiora eta Anartz ezagutu ondoren egiten zuen zerbait	<i>Alfonbrak eginez irabazten zuen egunerokoa</i>	<i>Alfonbra hegalariekin mezulari eta gutun partitzaile hasiko zen</i>	<i>Ez zen eskolara joaten</i>	<i>Eskolara joan denbora geratuz gero</i>	<i>Pobrea zen, gutxi irabazten zuen</i>	<i>Diru gehiago irabaziko zuen</i>	<i>Nagusiarekin nazkatuta zegoen</i>	<i>Ez zuen nagusiarentzat lan egingo</i>
Aiora eta Anartz ezagutu aurretik egiten zuen zerbait	Aiora eta Anartz ezagutu ondoren egiten zuen zerbait										
<i>Alfonbrak eginez irabazten zuen egunerokoa</i>	<i>Alfonbra hegalariekin mezulari eta gutun partitzaile hasiko zen</i>										
<i>Ez zen eskolara joaten</i>	<i>Eskolara joan denbora geratuz gero</i>										
<i>Pobrea zen, gutxi irabazten zuen</i>	<i>Diru gehiago irabaziko zuen</i>										
<i>Nagusiarekin nazkatuta zegoen</i>	<i>Ez zuen nagusiarentzat lan egingo</i>										
2	Bi adaketa aipatzen ditu.										

10. Istorio honetako gertaera batzuk errealitatean gerta daitezke, eta beste batzuk ezin dira benetan gertatu. Aipa ezazu benetan gerta daitekeen pasadizo bat eta beste bat fantasiatzkoa:

Benetan gerta daitekeen pasadizoa	Fantasiatzko pasadizoa
.....	
.....	
.....	

Zuzenketarako irizpideak					
Puntuazioa	Erantzuna/k				
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.				
1	Holako erantzunen bat, benetan gerta daitekeen pasadizo bat eta fantasiatzko beste bat aipatuz: <table> <tr> <th>Benetan gerta daitekeen pasadizoa</th><th>Fantasiatzko pasadizoa</th></tr> <tr> <td> Alfonbra bat erostera joan dira. Kotxez doaz bilbora. ... </td><td> <i>Anartz eta Aiora alfonbra hegalari batean ibiltzen dira.</i> <i>Dariusen hitz egiteko era</i> ... </td></tr> </table>	Benetan gerta daitekeen pasadizoa	Fantasiatzko pasadizoa	Alfonbra bat erostera joan dira. Kotxez doaz bilbora. ...	<i>Anartz eta Aiora alfonbra hegalari batean ibiltzen dira.</i> <i>Dariusen hitz egiteko era</i> ...
Benetan gerta daitekeen pasadizoa	Fantasiatzko pasadizoa				
Alfonbra bat erostera joan dira. Kotxez doaz bilbora. ...	<i>Anartz eta Aiora alfonbra hegalari batean ibiltzen dira.</i> <i>Dariusen hitz egiteko era</i> ...				



Xaretako leizeak

Lau herrik osatzen dute **Xareta** eskualdea: Sarak, Ainhoak, Urdazubik eta Zugarramurdik. Historiaurretik hasi eta gaur egun arte bizikidetza oparoa izan dela frogatzen duten hamaika testigantza dago: kontrabandoa, karlistaldiak, Done Jakue Bidea, akelarreak, leizeak eta abar.

Lau herri horietako kaleetan ibiliz gero, bisitatzea merezi duten hainbat leku aurkituko dugu:

- **Saran:** bertako museoa, pilotalekua, harmaila irregularrak, Herriko Etxea eta erromatar zubia.
- **Ainhoan:** karrika nagusian dauden XVII. mendeko etxeak eta eliza.
- **Zugarramurdin:** leizeak, eliza eta Dutaria etxea.
- **Urdazubin:** Axular idazlearen jaiotetxea eta errota.

Gainera, inguruko edozein mendi kaskora igoz gero, itsas kostaldeko bista zoragarriez gozatuko dugu.

LEIZEAK

Urdazubiko Leizeak

Urdazubi herrian gauza erakargarri asko daude, eta horien artean, historiaurreko kobazuloak, *Ikaburukoa* bisita daitekeen bakarra izanik. Leizea artzain batek aurkitu zuen 1808an, baina askoz ere zaharragoa da, Urtxuma erreko urak sortu baitzuen duela 14.000 urte inguru.

Leize-zulora egindako bisita gidatuak *-ezagutzeko modu bakarra da-* aukera emanen du estalaktitaz eta estalagmitaz osaturiko mundu magikoa aurkitzeko, eta aldi berean, beste garai batzuetan leizeetan bizi izandako pertsonaia mitologikoen, gerrillarien eta kontrabandisten gaineko oroitzapena ekartzeko. Agertu diren aztarna arkeologikoen arabera historiaurreko gizakia kobazulo haietan bizitu zen, eta inguru honetako elezaharrek diotenez lamien bizitokia ere izan ziren (lamia mitologiako izakia da, erdi arraina, erdi emakumea).



Zugarramurdiko leizeak

Zugarramurdi *Sorginkeriaren ibilbidean* dagoen herri bat da. Bertan nahasi egiten dira irudimena eta errealitatea.

Bisitatzea merezi duen leku bat leizea da. Zugarramurditik 400 metrora dago eta ez dago estalaktitarik, ez estalagmitarik, ezta hormetan historiaurreko pinturarik ere. Halere, erakargarritasun ia parageabea du XVII. mendera arte *akelarreak* egin zirelako bertan (bilkura paganoak ziren horiek). Leizeak dituen izenak are gehiago estutzen




dute mundu magikoarekin duen lotura. Besteak beste, *Sorgin Leize* esaten zaio tunelaren alde zabalenari, eta *Akelarre Leize* alde estuenari. Ospakizun batek biziberritzen du garai hartako festa giro hura. Abuztuaren 18an izaten da, herriko festen azken egunean, **Zikiro jatea** du izena. 800 lagun inguru biltzen dira herri bazkarian eta hesoletan erretako bildotsa jaten da.

Sarako leizeak

Zulo ugari daude Sara eta inguruetako mendigunean. "Lezea" edo "Sarako leizeak" deitua den hauetariko bat bisita daiteke. Bisita gidatuak 45 minutu irauten du, 900 m-ko bide bat segituz.

Sarako leizeak ez dira gizakien aterpea bakarrik izan. Duela 10.000 urte baino gehiago zuloan leize-hartzek pasatzen zuten negua! Gaur egun, saguzarrak dira zuloaren barnean sekula baino gehiago kabitu diren ugaztunak.




IBILBIDEA

Aldapa latzik gabeko bidexka eroso batek Ikaburuko Leizeak, Zugarramurdikoak eta Sarakoak lotzen ditu, zaldi txikien bidez seinaleztatua dago eta lasai ederrean doa belar-soro eta oihanetan barna. Ikaburuko leizetik hasita ia 4 orduko ibilbide zoragarria egin daiteke joan-etorrian.

Ibilbidean lurra errespetatu behar da, leize hauek, naturak sortutako artelanak dira eta milaka urte behar izan ditu altxor hauek osatzeko. Leizeak toki ahulak dira eta kanpoko eragileek aisa min ditzakete. Egiten diren bisitak gidatuak dira beti, kaltea ahalik eta txikiena izan dadin. Bisitarien aldetik errespetu guzua espero da.

- Leize barnean ez hitz egin oihuka.
- Bisitaldiak 40 minutukoak izaten dira gutxi gorabehera, bisitari kopuruaren arabera.
- Argiek iraupen murriztua dute, bisitaren erritmoa jarraitu behar da beraz.
- Argazkietan flasha erabiltzea debekaturik dago.
- Barneko egiturak (estalaktitak, estalagmitak etab.) ukitzea debekaturik dago.
- Leize barnean jatea eta edatea debekaturik dago.
- Leizeetako tenperatura 14 °C eta 16° C tartekoa izaten da.



11. Zer da Xareta?

- A. Mendi bat
- B. Herri bat
- C. Zonalde bat
- D. Kostaldeko herri bat

12. Zure ustez, goian aipatzen den ibilbidea egiteko, GPS-a beharko dugu? Arrazoitu zure erantzuna.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea. Adibidez: • Ez. • Bai, GPS-a beti ongi etortzen da. • Bai, GPS-a izanez gero beharrezkoa da • Ez, GPS-a izanez gero ere ez da beharrezkoa • Ez, GPS-a ez da beharrezkoa. • ...
1	Ezezko erantzuna, bidea seinaleztatua dagoelako. Ontzat emango da baita ere mapa oso argia dela edo maparekin nahikoa dela erantzuten badu. Adibidez: • Ez, bidea zaldi txikien bidez seinaleztatua dago eta erraza da • Ez, mapa oso argia da eta nahikoa da. • Ez, ibilbidea oso erraza da eta markatua dago. • Ez, bidea seinaleztatua dago. • ...

13. Non aurki dezakegu horrelako testu bat?

- A. Turismo bulego batean
- B. Ipuin batean
- C. Modako aldizkari batean
- D. Eleberri (nobela) batean

14. Esan ezazu ondoko baieztapenak egia (E) edo gezurra (G) diren.

	E	G
Ibilbidea zaldi txikiez seinalizatua dago.	X	
Elezaharren arabera, Zugarramurdiko leizeak Lamien bizitokia izan ziren.		X
Ikaburuko leizea 1808an sortu zen.		X
Sarako leizeetako bisita gidatuak ordu bat baino gutxiago irauten du.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	2 zuzen edo gutxiago.
1	3 zuzen
2	4ak zuzen (E – G – G - E)

15. Zure ustez, norentzat idatzi da testu hau?

- A. euskal mitologiako ikasleentzat.
- B. goi mailako mendizaleentzat.
- C. eguna edota asteburua pasatzera doazen familientzat.
- D. Zugarramurdiko biztanleentzat.

16. Testuaren arabera, zer ezin da egin leize bat bisitatzen dugunean?

- A. Lagunekin hitz egin.
- B. Berokia jantzita ibili.
- C. Flashik gabe argazki bat atera.
- D. Estalaktitak eta estalagmitak ukitu.

17. Zer adierazten digu ondoko irudi honek?

- A. Sorginen museora eta Zugarramurdiko leizeetara oinez joan behar dugula.
- B. Sorginen museoa Zugarramurdiko leizeak baino hurbilago dagoela.
- C. Sorginen museorako eta Zugarramurdiko leizeetarako bidea nondik den.
- D. Sorginen museora eta Zugarramurdiko leizeetara iritsi garela.



18. Aurten, 2014an, asteko zein egunetan izango da Zugarramurdiko festetako azken eguna?

- A. Astelehena
- B. Asteartea
- C. Larunbata
- D. Igandea

ABUZTUA 2014						
Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

19. Non dago autoa uzteko parkina?

- A. Sarako leizeen ondoan
- B. Zugarramurdiko leizeen ondoan
- C. Alkerdin
- D. Urdazubiko leizeen ondoan

20. Zergatik ezin zara joan leize horietara bisitan zure kabuz?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea. Adibidez: • Debekatuta dago. • Ezin da bakarrik sartu. • Argibideetan hori jartzen du. •
1	Erantzuna partzialki zuzena da, gauza bat aipatzen da (Bisitak gidatuak dira / leizeak zaintzeko). Adibidez: • <i>Bisitak gidatuak direlako, eta hori modu bakarra delako.</i> • <i>Gidariarekin bakarrik joan daitekeelako.</i> • <i>Leizeetan kalte gutxi egiteko.</i> • <i>Leizeak toki delikatuak direlako.</i> • <i>Jendeak leizeak hondatu ditzakeelako.</i> • <i>Argibideetan bisitak gidatuak izango direla aipatzen da.</i> • ...
2	Bi gauza aipatzen dira: alde batetik bisitak gidatuak direla (edo gidariaren lana aipatzen da), eta bestetik leizeak zaindu behar direla edota ahalik eta gutxien hondatu. Adibidez: • Argibideetan jartzen duen bezala “egiten diren bisitak gidatuak dira beti, kaltea ahalik eta txikiena izan dadin”. • Argibideetan jartzen du bisitak gidatuak direla eta ezagutzeko modu bakarra dela, leizeak ez hondatzeko. • Gidariarekin joan behar delako, • Gidariak arauak jarri eta betearazten dituelako... • Gidariak • ...

21. Idatz ezazu Urdazubiko eta Zugarramurdiko leizeen arteko diferentzia bat:

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea. Adibidez: • Urdazubikoak Urdazubin daude, eta Zugarramurdikoak Zugarramurdin. • Herri diferenteetan daude. • Zugarramurdi Sorginkeriaren ibilbidean dago, eta Urdazubi ez. • Urdazubiko leizeak historiaurrekoak dira eta Zugarramurdikoak ez. • Urdazubiko leizeak oso zaharrak dira. • ...
1	Diferentzia bat aipatzen du, adibidez: • <i>Urdazubiko leizeetan estalakitak eta estalagmitak daude, eta Zugarramurdiko leizeetan ez.</i> • <i>Urdazubiko leizeetan historia aurreko aztarnak daude, eta Zugarramurdiko leizeetan ez.</i> • <i>Urdazubiko leizeak loturik daude pertsonaia mitologikoekin, gerrillarien eta kontrabandisten istorioekin, eta aztarna arkeologikoekin. Eta Zugarramurdiko leizeak loturik daude sorginen istorioekin...</i> • ...

A collage of various cartoon characters. At the top left is a white, stylized figure with a blue face and a red and white striped garment. Below it is a green dinosaur with large eyes. To the right of the dinosaur is a grey mouse with pink ears. Further right is a tiger with orange and black stripes. At the top right is a witch with a black hat and a dark, flowing cloak. The characters are arranged in a somewhat chaotic, overlapping manner.

Idazlana

This image shows a full page of white paper with horizontal dashed lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page, providing a guide for handwriting practice. There are no margins, text, or other markings on the page.

Idazmena zuzentzeko irizpideak

Lana zuzentzen denean puntuazioak alderdi hauetan ematen dira:

- Aurkezpena eta ortografia
- Istorioaren koherentzia
- Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Alderdi bakoitzari 1etik 4rako puntuazioa emanen zaio, ondoren adierazten diren irizpideen arabera:

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso desegokia ziklorako. Idazkiaren aurkezpena txarra da akats ortografikoak asko dira.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. mailaren eskakizunetako hiru betetzen ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: • Garbi idatzita dago (ez da urraturik...) • Letra argia eta erregularra da. • Marjinak ongi zehazturik daude. • Ortografia: bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s idazterakoan egindako 5 akatseko 1 kontatzen da), testu laburrak direnean (1-15 lerro). Zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.	Bikaintasuna erakusten du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Istorioaren koherentzia	Oso desegokia ziklorako. Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, justifikatu gabeko jauziak daude.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. puntuazioko eskakizunetako lau betetzen ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: • Egitura argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera. • Hiru paragrafo ditu, gutxienez. • Bilakaera tematikoa: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsik ere; istorioa erraz segitzen da. • Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. • Perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). • Pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (badaki zeinek zer egiten duen).	Bikaintasuna erakusten du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko eskakizunak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (orduan; geroago; hala ere, etab.; ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa).
Zuzentasun gramatikala	Oso desegokia ziklorako. Testua ez da egituratu perpaus argiro zehaztu eta bereizietan. Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi. hitz egiten duen bezala idatzi du. Akats gramatikal asko egin ditu.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: • Sintaxi aldetik ongi eraturiko perpausekin egituratutako idazkia. • Aditz-denborak zuzen erabili ditu. • Ez du komunztadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabideak...) • Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. • Argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza. • Pertsonaiak eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu.	Bikaintasuna erakutsi du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko eskakizun guztiak (6) bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkian ez da akats gramatikalik, hiztegia aberatsa da eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testuak oso ongi idatzita daude, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.

Oharra: "0" puntuazioa soilik eman da ikasleak ez badu lana egin.

Eranskin honetan aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioak ikusi daitezke, eta baita zuzenketen deskripzioak ere, zehatz-mehatz. Ikus daitekeenez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak kasuz kasu baloratu behar du adierazle bakoitzaren egoera; askotan argi dago, baina beste batzuetan ez da argi hautematen baldintza hori betetzen duen ala ez, eta puntuazioak ematerakoan nolabaiteko malgutasunez baloratu behar da.

1. adibidea

Zugarra murririkoa leitera joango nait.
Eta ahurkikodut zorgin bat marastutako
maraski bat.

Zartu nait lelearen eta dena garria
aago gero haurkitudut beste bat
erabaz polita.

Igo behar duzu eskailera batzuk
izuteko beste herri batzuk dauka
leku batzuk bakarri sartzen gara
txikiak.

Gero beste leku polita da leku
bat foloan bat geyalada oso
ongi fazaratzen al duzu.

Eta murearra joateko
ordaindu behar duzu gutxiago
herdaitik leibara joan batzara
aerikuentu egiten ditute murea
oso polita da.

Galdera		1, 2, 3 edo 4
22.	Aurkezpena eta ortografia	1
23.	Koherentzia	1
24.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	1

Puntuazio horiek Educan sartu behar dira
(22., 23. eta 24. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona ematen du, garbi idatzita dago.*
- Letra argia eta erregularra. *Oro har letra garbia, erregularra eta uniforme da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak neurri batean errespetatzen ditu, baina eskuineko marjina ez da uniforme.*
- Ortografia. *Akats ortografiko ugari ditu, ortografia naturala barne.*

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzetatik, bizpahiru betetzen ditu; beraz, dagokion puntuazio puntu 1-2 da.

Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Ez du narrazio testuaren berezko egiturarik: aurkezpena, korapiloa eta amaiera.*
- Paragrafo kopurua. *Formalki paragrafo desberdinetan egituratuta dago, baina ez ditu erabiltzen ideiak bereizteko.*
- Bilakaera tematikoa. *Eskatutako lanari ez dio erantzun.*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Lokailuen erabilera oso pobrea da.*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Pertsonaiak eta ekintzak ez daude ongi zehazturik.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik soilik bat betetzen du. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausak ez daude ongi eratuta.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Aditzaldia ez du zuzen erabili.*
- Komunztadura. *Ez dago komunztadura akatsik.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Bakarrik bat erabili du eta ez ongi.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Lexikoa pobrea da.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik soilik bat betetzen du. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

2. adibidea

Ni Zugarramardiko leizean nengoen ni bakarrik, momentu batean Zugarramardiko sorgin bat ateratzen pareta batzuetan, ez zen itsusia osa polita zen, baina osa gaiztoa eta maltzurra zen. Esan zidan nire gauza guztiak eman behar zidala, edo hilko zidala, nik Korrikan hasi nintzen baina bera azetik segitzean zidan azkenean autobusera ailegata nintzen, nire etxera joan nintzen. Hurrengo egunean beldurre nire etxean telebistan bapatean sorgina etorri zen baina ez zen lehengo sorgina beste bat zen sorgin on bat eta beste leku batera joateko esan zidan sorgin gaiztoak nire etxerako bidean zegoela. Beste herrialde batera joan nintzen eta hortik aurrera ez nuen sorginik ikusi.

Galdera		1, 2, 3 edo 4
22.	Aurkezpena eta ortografia	2
23.	Koherentzia	2
24.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	2

Puntuazio horiek Educan sartu behar dira (22., 23. eta 24. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona du, garbi idatzita dago.*
- Letra argia eta erregularra. *Oro har, letra argia, erregularra eta uniforme da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak neurri batean errespetatzen ditu, baina eskuineko marjina ez da uniforme.*
- Ortografia. *Bost ortografia akats baino gehiago daude.*

Alderdi honen balorazioa: *Lau baldintzetatik, gutxi gorabehera, hiru betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.*

Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Hautematen da narrazioaren berezko egitura.*
- Paragrafo kopurua. *Testua ez dago ongi egituratuta paragrafotan.*
- Bilakaera tematikoa. *Apur bat nahasia, baina aldi berean garapen logikoa du.*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Perpaus batzuk besteekin ez daude ongi loturik, batez ere puntuazioari dagokionean.*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Apur bat nahasia da; halere, argi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *Sei baldintzetatik lau betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.*

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Orokorrean perpausen egitura zuzena da.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Aditzaldia zuzen erabili du bi kasutan izan ezik..*
- Komunztadura. *Komunztadura akatsak daude.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Mendeko perpaus batzuk sartu ditu.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Ahozko erregistroa erabili du.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Lexikoa ez da aberatsa adjektiboen eta adizlagunen erabilerari dagokionez.*

Alderdi honen balorazioa: *Ikus daitekeenez, sei baldintzetatik hiru betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2. puntu dira.*

3. adibidea

Ni zugarramundiko leizetara joan nintzen, nire familiarekin eta han oso motel joaten nintzen ez galdu egin nintzen.

Sartze linterria bat neukan eta nire kabuz joan nintzen. Bat-batean norbait ikusi nuen, nire adinetako neskatza bat. Ni bezalakoa zen, baina bera sorgin bat zen. Sorginak galdetu zidan:

-Nola deitzen zara? Ni Maider deitzen naiz.

Nik nire izena esan nion eta Maiderrek berrira galdetu zidan:

-Ez dut nire ama aurkitzen, lagunduko al didazu?

Nik baiez esan nion eta bilatzon hasi ginon.

Asko kostatu zitzaigun baina azkenean aurkitu genuen eta bera esan zidan:

-Eskerrikasko denagatik, eta tori hau, sortea emango dizu.

Eta biak joan ziren.

Emari zidana lepoko bat zen eta lau-
buru bat zuen erdian. Lepokoa jantzi nuen
eta leizeko irteera aurkitu nuen eta nire
familiarekin topatu nintzen. Handik
aurrera beti zortea izaten dut.

AMAIERA

Galdera		1, 2, 3 edo 4
22.	Aurkezpena eta ortografia	3
23.	Koherentzia	3
24.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	3

Puntuazio horiek Educan sartu behar dira
(22., 23. eta 24. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona du, itxura garbia.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra garbia, erregularra eta uniformea da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak errespetatzen ditu.*
- Ortografia. *Akats gutxi daude (s/z, letra larria kasu batean)*

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Hautematen da narrazioaren berezko egitura: aurkezpena, korapiloa eta amaiera.*
- Paragrafo kopurua. *Testua paragrafotan egituratuta dago.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da; erraz jarraitzen da mezua.*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...) *Lokailuen erabilera egokia da.*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Argi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzak betetzen ditu. Beraz, 3 puntuko puntuazioa dagokio.

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausen egitura egokia da.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Ongi erabiltzen du aditza, nahiz eta kasu batean pertsona nahastu.*
- Komunztadura. *Ez dago komunztadura akatsik, kasu batean izan ezik.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Baldintza hau betetzen du.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Idatzizko erregistroa aproposa da.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Adjektiboen eta adizlagunen erabilerari dagokionez, testua egokia da.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

4. adibidea

AMETSA

Ni lurrea niza, hamar urteko neska eta atea
zer gertatu zitzaidan kontatuko dizuet.

Ni, Aina, Aitana eta Iane ohienekin galduta
geunden.

Aina, onakoa biltzera joan zen gero su
egiteko, Aitana zerbat joteko bira joan zen,
Iane gaurko haligarririk topatzera joan
zen eta ni laguntza eskatzera joan nintzen.

Ahats eder bat entzun nuen ibaiaren ondoan
eta zer zen ikustera joan nintzen, han ikusi
nuen harigarririk zuten laguna bat zela!
Besteak kontatzera joan nintzen eta bes-
teak ni bezain harrituta zeunden: Txak
elga bat ikusi zuen, Aitanak katu bataduna
eta Ainaak unibertsitate bat ikusi zuen.
Lagun biek esan eta ikusitakoak
sartu ginen eta atea handi batek
esan zigun:

- Ikusi ahal ☒ Txanogorritxo?

Guk esan genion ezetz.

Aurrerago jarraitu gertuen eta gertek
 herdi bat ikusi gertuen. Orduan konturatu
 nintzen ipuinen munduan gertatela
 eta bat-batean entzun zen:
 RIIIIII NNGG-!!!!!!

Nire esneagailua zen eta dena amets
 bat izan zen. Azkenik orduan hasi nintzen
 nire eta eskolaren goateko orduan zen!

Galdera		1, 2, 3 edo 4
22.	Aurkezpena eta ortografia	4
23.	Koherentzia	3
24.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	4

Puntuazio horiek Educaren sartu behar dira
 (22., 23. eta 24. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona eta garbia.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra garbia, erregularra eta uniformea da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Oro har, marjinak errespetatzen ditu.*
- Ortografia. *Ez dago ortografia akatsik.*

Alderdi honen balorazioa: *lau baldintzak aise betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.*

Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Argi ikusten da narrazioaren berezko egitura. Amets baten barruan sartzen du istorioa.*
- Paragrafo kopurua. *Testua paragrafotan egituratuta dago eta idatziaren zatien arteko lotura antzematen da.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da. Eskatutako lanari erantzun dio (xede eta luzera).*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Alderdi honetan ez dago aberastasunik.*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Argi eta garbi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *Sei baldintzetatik bost betetzen ditu. Beraz, 3 puntuko puntuazioa dagokio.*

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausen egitura zuzena da.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Ongi erabiltzen ditu aditzak, kasu batean izan ezik.*
- Komunztadura. *Ez dago komunztadura akatsik*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez.. *Mendeko perpausak sartu ditu.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Idatzizko erregistroa egokia da.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Adjektiboen eta adizlagunen erabilerari dagokionez, testua egokia da.*

Alderdi honen balorazioa: *sei baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.*